

FAUNA PUBLIKOA

**"Klimarekin errespetuz
jokatzen duen garapen
eredu jasangarria behar dugu.
Hondamena gainean dagoenean
lanean hastea ez da nahikoa"**

**Jose Ignacio Asensio,
Gipuzkoako Ingurumen diputatua**

A esan, Z egin




Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Tripa luzeko Partagas puruaren kea aurpegira botatzen dizun bitartean ohartaraziko dizu erretzaile pasiboek bizi duten arriskuaz, norbaitek egin behar luke zer bait problema larri horrekin. Haurra magalean hartu eta erregelarekin ipurdia gorritzen dion bitartean (zart!) egingo dizu (zart!) pedagogia librearen proselitismoa, puskaz (zart!) hobeia maisu autoritarioen aldean (zart!). "Todos deberíamos hacer un esfuerzo para hablar más en euskera", esango dizu. Martxoaren 8ko manifara joango da emaztea etxearen eta haurren kargu utzita. Kexatuko da portalean drogadiktorek ez duelako nahi, tabernako komunean azkazalarekin irin pixka bat sudurreratzen duen bitartean. Barran ukondotuta, jendea zein zeken eta egoista den nardatuko du, iritsiko da tragoentzat botea jartzeko momentua eta sueltorik ez du edukiko, azkeneko sei asteetan bezala -tragoak berdin-berdin edango ditu, azkeneko sei asteetan bezala-. Hitza emango dizu etorriko zaizula bila, eta eurpean ordubete zain pasa ondoren taxi bat hartu beharko duzu -"ez al zeneukan autobusik ordu horretan?", galdetuko dizu-. Halakok hainbesteko kotxea zertarako behar duen kritikatu du soziedadean, "traste txikiagoan ere kabituko zen ba"; halakoren kotxe bera erosiko du sos batzuk eduki bezain pronto.


A esango du, Z egingo.

Eta hauteskundeak iristen direnean, botoa emango dio erraustegi bat eraikitzeke direnak eta ez direnak egin ondoren, klimarekin, jasangarritasunarekin, hondamen ekologikoarekin ahoa betetzen zaion politikariari. "Nire antza daukala esan didate", komentatuko du lagunartean. Eta behingoagatik, egia esaten ariko da. ■

EZ HANKA EZ BURU!



IRAILAREN 16TIK
RAMON ESONO EBALE MARRAZKILARIA
KARTZELAN DAGO TEODORO OBIANG NGUEMA,
EKUATORE GINEAKO PRESIDENTEA,
ARMA HAUEKIN ERASOTZEAGATIK...



ADUR